

Haur eta nerabeei begirako eskaintza

Euskara errefortzu programak eta Gazte eragileen batzordeak

*Ebete hizkuntza zerbitzuak
2023ko otsailean*

Aurkezpena

Ebete hizkuntza-zribituetatik azken urteetan hainbat baliabide landu ditugu haur eta nerabeen euskararen erabilera indartzera, ahozko gaitasuna garatzera eta euskararekin harremana sendotzera begira.

Programa eta baliabide gehienak haur eta nerabeekin aritzen diren eragileei begirakoak dira: irakasleentzat ikastaroak, gurasoentzat saioak, eskolaz kanpoko eta kiroleko hezitzaileentzat formazioa eta aholkularitza, eta abar.

Baina horietaz gain haur eta nerabeei begirako programa batzuk sortu ditugu eta kudeatzen ari gara. Bi norabidetako programak dira:

- Euskara errefortzu programak: MintzaOn (online) eta Berbontzi (aurrez aurre)
- Gazte eragileen batzordeak

Ezaugarri ezberdinetako programak dira, baina biak haur eta nerabeen hizkuntza-sozializazioan laguntzera begira egokiak eta eraginkorrak:

- MintzaOn online programa da. Etxealdi garaian sortutakoa da eta arrakasta eta eraginkortasuna ikusita mantentzea eta hedatzea hautatu da,
- Berbontzi: aurrez aurreko errefortzu saioak dira, Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendutakoak.
- Gazte ekintzaileak: kasu honetan parte hartzaileak euskara sustatzeko prest dauden nerabeak dira, errefortzu programa bat baino babesgune bat eskaini nahi zaie, eta eragile izan daitezen lagundu.

Ondorengo orrietan programa bakoitzaren aurkezpena egiten da.



Azalpenak:

3 orrialdean



4 orrialdetik aurrera



15 orrialdetik aurrera

MINTZAON



Programari buruzko azalpenak Ebeteko webgunean aurkituko dituzu lotura honetan:

BERBONTZI: EUSKARA INDARTZE SAIO LUDIKOAK PROGRAMAREN AURKEZPENA



- Aurkezpena
- Helburuak
- Gaitasun komunikatiboetan eragitea
- Gaitasun komunikatiboen lanketa egiteko irizpideak
- Erabilera eta gaitasun komunikatiboa garatzeko estrategiak
- Jarrerak lantzea
- Egokitasuna eta eraginkortasuna baloratzeko bideak
- Programaren ezaugarriak
- Antolaketarako urratsak

Aurkezpena

Nerabe gehien gehienek D eta B ereduetan ikasten dute eta euskararen ezagutzak nabarmen gora egin du azken hamarkadetan. Ezagutzak gora egin duen arren, ez du modu berean egin ulermen gaitasunean eta erabiltzeko gaitasunean. Ikasleen gehiengoak eskolaz kanpo euskara erabiltzeko aukera gehiegi ez duenez, erabiltzeko gaitasuna ez da nahi beste garatzen. Azken batean helburua ez da ikasleek euskarazko eredu batean ikastea, helburua da euskara ere edozein egoera eta harremanetan eroso eta segurtasunez aritzeko gai izatea, eta bertako bi hizkuntza ofizialetan gaitasun hori garatzea.

Haur eta nerabeen euskara gaitasunean eragiteko hainbat bide garatu daitezke. Ondoko orrietan euskara indartze saio ludikoen inguruko proposamen bat aurkezten dugu.

Helburuak

- Bigarren Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailako ikasleei, euskara gaitasuna hobetzera begira erabilera gune bat eta testuinguru egoki bat eskaintzea.
- Lanketa horren bidez, gaitasunean eta erabileran eragiteaz gain, hizkuntzarekin harremanean eragitea, eta beraz, euskararekiko jarreretan eragin positiboa izatea.

Erabileran eta gaitasun komunikatiboetan eragitea

Programa honen izaera berritzailea da. Haur eta nerabeentzat eskola orduz kanpo eskaintzen diren eskola errefortzu programetan ludikotasuna hartu ohi da oinarri moduan, eta programa honetan ere hori mantentzen da.

Baina, horretaz gain, ahalegin berezia egiten da gaitasun komunikatiboen lanketa ondo garatzeko: behar bezala oinarritua, tresna egokiak landuta, eta neurgailuak ondo zehaztuta.

Gaitasun komunikatiboen lanketa egiteko honako irizpideak hartzen dira kontuan:

- Irteera profilak
- Ikuspegi komunikatiboa
- Ahozketasuna

Lanketa hori egiteko estrategia eta baliabide hauek erabiliko dira:

- Elkarrizketa itxiak eta hizkuntza-jolasak
- Jarduera egokituak
- Hizkuntza errutinak
- Ekintza komunikatiboak
- Ulermen estrategiak

Horren guztiaren eraginkortasuna eta egokitasuna baloratzeko hainbat neurgailu jarriko dira:

- Parte hartzaileen gaitasun komunikatiboari buruzko galdetegiak
- Erabilitako estrategia bakoitzaren balorazioa egiteko fitxa
- Programazio ludikoaren eta taldeen dinamikaren balorazioa egiteko galdetegiak
- Hori guztia jasotzen duen eta balorazio orokorra ere izango duen memoria ikasturte amaieran

Gaitasun komunikatiboen lanketa egiteko irizpideak

Honakoak dira gaitasun komunikatiboen lanketa egiteko irizpideak:

- Irteera profilak
- Ikuspegi komunikatiboa
- Ahozketasuna

Irteera profilak

Europar markoak hizkuntza-gaitasunen sailkapen bat egiten du: A1, A2, B1, B2, C1 eta C2. Sailkapenak ez du hizkuntzaren ezagutza deskribatzen, hainbat egoeretan hizkuntza hori erabiltzeko gaitasuna baizik.

Irteera-profilak zehazterakoan, Heziberri eta Europar Markoa hartuko ditugu erreferentzia moduan. Helduen hizkuntza-alfabetatzera sortutako sailkapen bat da, baina hezkuntzara ere egokitu da. Erreferentzia moduan erabili behar dira, Heziberrik ez duelako zehazten etapa eta ziklo bakoitzean gaitasun maila jakin bat lortzea

beharrezkoa denik. Baina ikasketak aurrera eramateko, zein hizkuntza-gaitasun behar diren ikertu da Europar Markoaren barruan, eta honakoa da erreferentzia hori entzun, idatzi, mintzatu eta irakurtzeko:

- 12-13 urte: B1
- 15-16 urte: B2

Europar Markoak sei mailako sailkapena egiten du eta maila bakoitzean hizkuntza komunikaziorako gaitasuna bost dimentsio edo trebetasun hauetan egituratzen da:

- Ahozko ulermena
- Ahozko elkarrekintza edo elkarreragina eta ahozko ekoizpena
- Idatzizko ulermena
- Idazmena

Euskara indartzeko programa honetan, lehen bi ataletan jarriko dugu arreta: ahozko ulermenean eta ahozko ekoizpenean. Euskara gaitasun apala duten ikasleek parte hartuko dutela kontuan hartuz, eta parte hartzaileen benetako maila aztertutakoan taldez talde berriz zehaztu beharko dela aurreikusita, honako helburu hauek jartzea proposatzen dugu:

- Ahozko ulermena: B1
- Ahozko elkarrekintza edo elkarreragina eta ahozko ekoizpena: A2


Irteera-profilak zehazteak ikasleek zer gaitasun izan behar duten jakiten lagunduko digu, eta beraz, zer den landu behar dena eta ebaluatu behar dena.

Ikuspegi komunikatiboa

Heziberrik eta Europar Markoak hizkuntzak ikuspegi komunikatibotik lantzea proposatzen dute. Ikuspegi komunikatibotik lan egiten badugu nerabeei komunikatzeko gaitasuna garatzen lagunduko diegu: egiten jakin behar dute.

Ikuspegi horren arabera, ez da neurtzen nerabeek zenbat dakiten, baizik eta hizkuntza horrekin zer egiteko gai diren.

Ikuspegi komunikatiboaren urratsak:



Euskara indartze saioetan ikuspegi hau oso kontuan izango da. Programan zehar hainbat ekintza komunikatibo proposatuko dira eta hainbat tarteetan hizkuntzaren lanketa ekintza komunikatibo horretara begira egingo da.

Ahozkoatasuna

Ahozkoatasuna izango da programaren zehar lerro nagusienetako bat. Ahal den guztia ahoz egingo da eta idatziak leku txikia izango du. Ulermena eta ahozko produkzioa hobetzen lagundu nahi zaie batez ere. Gainera, izaera ludikoa duen jarduera izanik idatzia oinarri duten estrategiak kaltegarriak izan daitezke.

Erabilera eta gaitasun komunikatiboa garatzeko estrategiak

Lanketa hori egiteko estrategia eta baliabide hauek erabiliko dira:

- Elkarrizketa itxiak eta hizkuntza-jolasak
- Jarduera egokituak
- Hizkuntza errutinak
- Ekintza komunikatiboak
- Ulermen estrategiak

Elkarrizketa itxiak eta hizkuntza-jolasak: eginda ematen zaizkien elkarrizketa eta esaldia dira. Ekintza ludikoak dira baina hizkuntzaren lanketa modu esplizitua egiten da. Ariketa, jolas eta dinamika sinple eta denbora tarte laburrean egitekoak dira.

Jarduera egokituak: jarduera edo dinamika bera aurrera eramateko hizkuntza erabiltzea ezinbesteko bihurtzean oinarritzen da. Hizkuntza erabiltzea ezinbestekoa denez, hezitzailearentzat errazagoa da elkarrizketak euskaraz izan daitezen parte hartzaileei laguntzea. Jarduera hauek egin ahal izateko gutxieneko hizkuntza-gaitasun bat beharrezkoa da, baina maila baxukoekin ere egin daitezke batzuk.

Hizkuntza-errutinak: jardueran zehar hainbat hizkuntza-errutina txertatuko dira. Besteak beste: agurrak, instrukzio batzuk, txanda eskatzekoak eta abar. Oinarrizko batzuk jarriko dira hasieran, eta tartean behin, gehitu edo aldatu egingo dira. Tresna osagarri bat da, baina hainbat hizkuntza egitura lantzeko baliagarri izan daiteke.

Ekintza komunikatiboak: ikuspegi komunikatiboa ere landu nahi denez, jardueran zehar hainbat ekintza komunikatibo proposatuko zaizkie. Hizkuntza erabiliz aurrera atera behar dituzten egoera edo erronkak proposatuko zaizkie, ahal den neurrian taldetik kanpoko harremanak ere bilatuz eta harreman horietan euskararen erabilera bermatuz.

Ekintza komunikatibo horiek ezaugarri hauek izango dituzte:

- Irteera profila kontuan hartuz planteatuko dira: parte hartzaileak dauden gaitasun maila horretan zer egiten jakin behar dute?
- Hortik kompetentzia eta arazo egoera bat zehaztuko dira
- Arazo egoera hori ekintza komunikatibo bihurtuko da. Ekintza horrek benetako egoera bat izan behar du.
- eta ekintzat hori aurrera eramateko zer jakin behar duten eta zer den erakusgarri zehaztuko da lanketa egin ahal izateko.

Adibidez:

- Hiru hileko baten amaieran ekintza berezi bat egingo dugu: pertsonai ezagun bat gonbidatuko dugu eta herria erakutsiko diogu.
- Kide bakoitzak auzoaren leku bat aurkeztu beharko dio.
- Gainera, aurretik bideo bat bidaliko diote nortzuk diren azalduz eta zertara gonbidatzen duten azalduz.
- Beraz: aurkezpen eta azalpen horiek egiteko baliabide batzuk behar dituzte, baita arratsaldean zehar hartu-emanetan aritzeko hainbat esaldi, galdera eta abar ere. Horiek landuko dira hizkuntza-jolasen eta beste estrategien bidez.

Ulermen estrategiak: hezitzaileek ulermen estrategia anitzak erailtzea ere zainduko da. Ulermen estrategien bidez parte hartzaileei hizkuntza garatzen lagunduko zaie: estrategia horien bidez zein urratsetan dauden ikus daiteke, pare hartzaileei beraien gaitasunarekiko segurtasuna emango zaie, eta abar.

Eraginkortasuna eta egokitasuna baloratzeko neurgailuak

Euskara indartze saio hauek eraginkorrak eta baliagarriak diren ikusi nahi da. Ikuspegi berritzailea duen programa da eta lantzen diren estrategiak eta dinamikak baloratu eta neurtu nahi dira.

Neurgailu horiek prestatu egin behar dira programa abian jarri bitartean, baina honakoak aurreikusten dira:

- **Parte hartzaileen gaitasun komunikatiboari buruzko galdetegiak:**
 - o Irakasleentzat galdetegia jarduera hasi aurretik: batez ere parte hartzaileen hizkuntza gaitasuna ikusteko galdetegia.
 - o Hezitzaileentzat galdetegia jarduera hasi eta bi asteetara: aurreikusitako hizkuntza-gaitasuna egokia den baloratzeko, landu nahi den irteera profila egokitzeko eta landuko diren egitura edo ekintza komunikatiboak egokitzeko.
 - o Hezitzaileentzat galdetegia hiru hilean behin eta jarduera amaieran: gaitasunetan eman den bilakaera ikusteko eta norabidean edo landu beharreko egitura eta jardueretan aldaketak egin behar diren ikusteko.
- **Erabilitako estrategia bakoitzaren balorazioa egiteko fitxa**
 - o Erabiliko den estrategia bakoitzaren balorazioa egiteko fitxa: elkarrizketa itxiak, hizkuntza-jolasak, hizkuntza errutinak, ekintza komunikatiboak eta abar. Aurreikusi moduan egin diren, eraginkorrak diren eta nerabeen ezaugarrietara ondo egokitzen diren ikusteko. Estrategien balorazio hau ondo egitea oinarrizkoa izango da aurrera begira programa finkatzeko edota hobetzeko.
- **Programazio ludikoaren eta taldeen dinamikaren balorazioa egiteko galdetegiak hezitzaileentzat, parte hartzaileentzat eta familientzat**
- **Hori guztia jasotzen duen eta balorazio orokorra ere izango duen memoria ikasturte amaieran**

Jarrerak lantzea

Ezaugarri hauetako programa bat euskararekiko jarrerak lantzeko erabiltzea ere oso egokia da: euskararen erabilera eta gaitasuna lantzea oinarri izan arren, horren osagarria jarrerak lantzeko jarduerak egin daitezke.

Bide horretan bi oinarri hartuko dira kontuan:

- Hizkuntzarekin harremana
- Hizkuntza-sozializazioa

Herriko nerabeak eleaniztunak izateko bidean daude: gutxienez euskara, gaztelania eta ingelesa ikasten ari dira. Eleaniztunak izatea ona izango da beraientzat, baina prozesu horretan hizkuntzekiko harremana zaindu behar da. Nerabe askok euskara nagusiki eskolarekin lotzen dute, eta askotan euskararekin harremana nahiko ahula da. Horrek eragina du beraien jarreretan.

Bestalde, sozializazio prozesu batean daude eta hor hizkuntza-sozializazio bat ere ematen da: inguruan dituzten edota ikasten ari diren hizkuntza horiek noiz eta norekin erabili ikasten dute, gizartean zein balio duten barneratzen dute, eta abar. Beraz, hizkuntza-sozializazio horretan euskararekin harreman indartsu eta positiboa izaten laguntzea onuragarria izango da beraientzat.

Horri begira, Soziolinguistika klusterrak landutako ikerketa bat hartuko da lan tresna moduan: *Gazteen hizkuntza-ohituretan eragiten duten faktoreak* (2010). Honakoak dira faktore horiek:

Ama-hizkuntza: etxetik euskara jasotzea.
Ingurune hurbila: kalean euskara asko entzutea, familian, etxean...
Bakoitzaren jarrerak: euskararen aldeko jarrera izatea edo ez izatea.
Hizkuntza-gaitasuna: ezagutzen dugun hizkuntzetako bakoitzean dugun gaitasuna. Adb: euskalkian aritzeko gai izatea, lagunarterako erregistro aberatsa...
Identitate kolektiboa: norbera ibiltzen den giro eta taldeetan euskararen aldeko jarrerak ikustea, euskararekiko jokabide aktiboak ikustea...
Harreman sareetako hizkuntza-arauak: harreman sare guztietan izaten dira hizkuntza-arauak. Euskarak nolako lekua du norbera ibiltzen den sare horietan?
Pertsona eta talde erreferenteak: 2-3 helduagoak diren kuadrillek euskararekiko erakusten dituzten jokabideak, erreferenteak diren pertsonaiek erakusten dituztenak...
Hizkuntzarekiko gizarte pertzepzioa: hizkuntza bakoitzari buruz jasotzen ditugun mezuak (zein balorerekin lotzen diren...).
Egoera soziolinguistikoarekiko gizarte pertzepzioa: euskararen ezagutza eta erabilera

normalizat ikustea, eskolarekin soilik lotzea...

Kontsumo eskaintza: produktu eta zerbitzuak euskaraz eskura izatea (musika, eskola orduz kanpoko jarduerak...).

Input mediatikoa: komunikabideetatik jasotzen ditugun mezuak.

Testuinguru politikoa: legeak, testuinguru horietatik jasotzen ditugun mezuak, zerbitzu eskaintza...

Faktore horietatik abiatuz, programa zehar zein nolako jarduerak landu daitezkeen ikusi daiteke. Are gehiago, jarduera adibideen bilduma bat osatua dugu lehendik ere: Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskariz, gaztelekuetarako hainbat proposamen landu genituen Ebete hizkuntza-zerbitzuetatik eta horiek erabilgarri izan daitezke euskara indartze programa honetan.

Gida horretan hiru motatako jarduerak biltzen dira: hausnarketa oinarri duten jarduerak, jarduera ludikoak eta hausnarketak bideratzek egoerak baliatzea. Besteak beste erreferenteen inguruko dinamikak daude, identitate kolektiboari buruzko hausnarketak, aurreiritziei buruzko dinamika eta jolasak eta abar.



Nerabeentzako Zerbitzuetan euskararen erabilera sustatzen

Faktoreekin lotutako jarduerak eta hausnarketak






Programaren ezaugarriak

Nori zuzendua?

Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarren mailan ikasten duten eta euskarari dagokionez erraztasunik ez duten nerabeei.

Nork parte har dezake?

Gonbidapen bidez egingo da deialdia. Institutuetako irakasleek erabakiko dute zein ikaslek parte hartzea nahi duten eta ikasle horiei eta haien gurasoei bana banako gonbidapena egingo diete.

Ikasketetan ahalegin bat egiten dutenak izatea komeni da. Hau da: ikasteko eta parte hartzeko gutxienerako jarrera egoki bat izan dezaketenak.

Taldeen ezaugarriak

Talde bakoitzean gehienez 10 kide arituko dira eta gutxienez 7. Talde bakoitzarekin hezitzaile bat arituko da.

Saioen ezaugarriak:

Astean bi orduko saio bat izango da.

Hiru hileko programa izango da eta saioak presentzialak izango dira. Hiru hileko bakoitzean 10 saio egingo dira. Hiru hileko bakoitzaren ondoren institutuetako irakasleekin programa berraztertuko da eta deialdi berriak egingo dira: ikasle berdinei edo beste batzuei.

Saioak egiteko azpiegitura:

Aukera izanez gero, saioak institututik kanpo egingo dira: gizarte etxe baten edo baliagarria izan daitekeen beste lokal batean. Modu horretan, "klase" bat izatetik urruntzea errazagoa da, espazioa eta giroa ezberdinak baitira.

Hori ezin bada egin, institutuan bertan egingo dira saioa.

6- Antolaketa-urratsak

Lehenengo urratsa: programaren ezaugarriak adostea.

Dokumentu honetan egiten den proposamena oinarri hartuz, Ebete eta Udalaren artean programaren ezaugarriak adostu behar dira: iraupena, taldekatzea, izen-ematea, aurrekontua eta abar.

Bigarren urratsa: institutuei aurkeztea eta programa egokitzea.

Programaren azalpenarekin dokumentu bat bidaliko da institutu-entzera eta bilera bat egitea proposatuko zaie.

Udaleko eta Ebeteko ordezkariak institutu-entzako arduradunekin bilduko dira eta programaren ezaugarriak azalduko dizkiete. Programa aurrera eramateko beharrak eta baldintzak ere zehaztuko dira: izen-ematea, saioak egiteko lekua eta abar.

Institutu-entzako arduradunek ekarpenak egiteko aukera izango dute.

Hirugarren urratsa: hezitzaileak hautatzea eta formatzea, eta estrategia garatzea.

Institutuek parte hartzea erabakitzen badute, hezitzaileak hautatu eta formatuko dira. Aldi berean programazioa garatuko da eta horrekin lotutako estrategiak eta neurgailuak landuko dira.

Hori guztia institutu-entzako eta Udaleko arduradunei aurkeztuko zaie programa abian jarri aurretik.

Laugarren urratsa: deialdia egitea eta taldekatzea egitea.

Programaren lanketa egiten den bitartean deialdia eta taldekatzeak ere egingo dira.

Deialdia egiteko esku-orri moduko bat prestatuko da eta institutu-entzako irakasleen ardura izango da dagokionari behar bezala helaraztea. Izen-emateak jasotakoan taldekatzeak egingo dituzte irakasleek eta Ebeteko dinamizatzaileei helaraziko dizkiete.

Bosgarren urratsa: programa abian jartzea.

Programa abian jarri aurretik parte hartzaileei buruzko informazioa jasoko da. Horretarako institutuetakoko irakasleei galdetegi bat helaraziko zaie eta ondoren bilerak egingo dira. Irakasleekin hizkuntza-helburuak aztertu eta adostuko dira, erabiliko diren estrategien berri emango zaie, eta koordinatzeko eta harremanetan jarraitzeko bideak finkatuko dira.

Horren ondoren programa abian jarriko da, eta taldeak elkartzen eta jarduerak aurrera eramaten hasiko dira.

GAZTE ERAGILEEN BATZORDEAK



- Aurkezpena
- Gazteen Euskara Batzordearen ezaugarriak eta dinamizazioa
- Deialdia egitea
- Batzordea osatzea eta formazioa eskaintzea
- Egitasmoa zehaztea eta aurrera eramatea
- *Ebete hizkuntza-zerbitzuen* aholkularitza

Aurkezpena

Hizkuntza normalizazioaren ikuspegitik, hainbat herri eta eskualdetan datozen urteetarako erronka handietako bat haur eta gazteen artean euskararen erabilera indartzea izango da. Hau da: haur eta gazteen hizkuntza-ohituretan eragitea.

Hizkuntza-ohituretan eragitera begira, zuzeneko eragileak lau dira:

- Gurasoak
- Irakasleak
- Eskola orduz kanpoko jardueretako hezitzailea
- Gazteak

Eragile bakoitzarekin lan egin daiteke eta bide bakoitza indartu.

Oraingoan gazteen beraien atalean kokatu nahi dugu: gazteak euskararen erabileraren eragile. Eta hori egitasmo zehatz batekin lotuko da: Gazteen Euskara Batzordea.

Gazte Eragile Batzordearen ezaugarriak eta dinamizazioa

Gazte Eragileen Batzordeak hiru helburu izango ditu:

- Partaide diren kideen artean euskararen erabilera indartzea eta finkatzea.
- Inguruko gazteengan eragitea.
- Txikiagoentzat erreferente izatea.

Hau da: batzordean parte hartuko duten kideak euskararekiko sentsibilizatuta daudenak izango dira, baina horrek ez du esan nahi euskararen erabilera finkatua dagoenik beraien artean. Beraz, hori izango da ardatzetako bat. Horretaz gain, beraiek eragile izatea nahi da eta erreferente izatea ingurukoengan eta txikiagoengan.

Batzordea 16-18 urte arteko gazteekin osatuko da: DBH4ko eta Batxilerreko ikasleekin. Parte hartzea borondatezkoa izango da: nahi duten gazteek parte hartuko dute.

Aukera ikusten den kasuetan, benetan interesgarria da Batzordearen dinamizazioa Euskara Elkartearen esku jartzea. Euskara Elkartearen helburuetako bat haur eta gazteen hizkuntza-ohituretan eragitea da, eta horri begira Gazteen Batzordea dinamizatzea egitasmoaren arlo eraginkor bat izan daiteke.

Bide batez, ikastetxeen eta herriaren arteko lotura egingo da. Hau da: parte hartuko duten gazteak herriko ikastetxeetan dabilzanak izango dira, eta jardueraren zati bat ikastetxe barruan eragitera begira kokatu daiteke. Baina gazte horiei eskualdeko erreferenteak eskaintzen zaizkie (euskara elkarteko kideak eta dinamizatzaileak), eta ikastetxeko ibilbidea amaitzen dutenerako eskualdeko euskararen eragileekin harremana egina izango dute.

Euskara Elkarerik ez dagoen herrietan edo aukera hori ikusten ez denean, herriko beste eragile batzuk izan daitezke dinamizatzaileak: Gaztelekuko hezitzaileak, aisialdi edo kultur jarduera batetakoak...

Edozein kasutan, klabe nagusienetako bat dinamizatzaileak gazteentzat erreferente egokiak izate da, gazteentzat gertukoak eta erakargarriak diren pertsonak eta taldeen dinamizazioan ondo arituko direnak. Hori lorzten bada, gazteen Batzordeak arrakasta izan dezake.

Deialdia egitea

Jarduera abian jartzera begira, batzordea dinamizatuko duen pertsonak bi saio egingo ditu ikasleekin. Saio horietan euskararen erabileraren inguruan hausnartuko da (eranskinetan saio horien adibide bat aurkezten da).

Behin saioak egindakoa, gazteei Euskara Batzordean parte hartzeko gonbitea egingo zaie.

Kontuan izan behar da:

- Izena ematen dutenen eta dinamizatzailearen artean erabakiko da antolaketa: noiz bildu, non bildu... Ikastetxeetan bertan izan daiteke edo ikastetxeetik kanpo.
- Ikastetxeek erraztasunak eman behar dituzte bilerak egin ahal izateko eta gauzak antolatu ahal izateko. Baina batzordea eskola orduz kanpoko jarduera bat izango da. Hau da; ez zaie eskatuko ikastetxeei ikasleei bileretan parte hartu ahal izateko orduak ematea.
- Zaila da aurreikustea zenbat gaztek parte hartuko duten: urte batzuetan kopuru handia izan daiteke eta beste batzuetan oso txikia. Baina hori ez da garrantzitsuena izango: garrantzitsuena parte hartzen duten gazteka gustura aritzea da eta egiten dituzten jarduerak zentzua izatea.

Batzordea osatzea eta formazioa eskaintzea

Izena ematen duten batzordekideekin formazio saio bat egingo da.

Argi dago batzordeak berak erabakiko duela zein ekintza antolatu, baina egiten duenak zentzua izan behar du eta horretarako oinarri batzuk eta irizpide batzuk aurkeztu behar zaizkie. Formazio saio hau ebete hizkuntza-zerbitzuetatik bideratuko dugu batzordearen dinamizatzailerekin batera.

Gazteekin hizkuntza-ohituren oinarrian zer dagoen ikusiko da, eta horri begira zein arlo garatu daitezkeen ere ikusiko da: hainbat adibide erakutsiko zaizkie.

Hortik abiatuz, batzordeak ikasturterako egitasmoa zehaztuko du.

Egitasmoa zehaztea eta aurrera eramatea

Batzordeak lantzen duen egitasmoa xumea izango da: eragile izatea nahi da baina ezinbestekoa da gustura.

Abiapuntu moduan *Euskararen erabileran eragiten duten faktoreak* hartuko dira (Soziolinguistika Klusterraren ikerketa).

Bost puntu hauen arabera lan egitea proposatuko zaie:

- Hizkuntza-gaitasuna: hizkera informala
- Jarrerak: euskara gehiago erabiltzeko ahalegina egitea
- Erreferenteak eta kontsumo eskaintza
- Hizkuntza-ohiturak eta hizkuntza-arauak
- Euskara erakargarria izatea: bizipenak eta euskara balio indartsuekin lotzea

Ikuspegi honetatik gauza asko eta oso ezberdinak antolatu daitezke:

- Euskarazko erreferenteak gazteen eskura jartzeko bideak: musika taldeak ezagutzera eramateko kanpainak, erreferenteekin ekintzak, batzordekoak txikiagoen erreferente...
- Euskara gehiago erabiltzeko ahalegina egitera begira erronkak eta kanpainak
- Hizkera informalaren inguruan euskarazko esamoldeak sozializatzeko jarduerak,

kanpainak, lehiaketak...

- Hizkuntza-arauak aldatu daitezkeela ikusteko behaketak, frogak, dibulgazio lana...
- Euskara balio indartsuekin lotzera begirako kanpainak eta ekintzak
- Euskarazko bizipenak eskaintzeko txangoak, euskarazko jardueren berri ematea, euskarazko jardueretan parte hartzea sustatzea...

Batzordekideei hainbat adibide aurkeztuko zaizkie, beraiekin batera ideia gehiago landuko dira, eta horretatik zehaztuko dira lehentasunak eta zein arlori helduko zaion.

Ebete hizkuntza-zerbitzuen aholkularitza

Ebete hizkuntza-zerbitzuetatik proiektua abian jarri bitarteko urrats guztietan parte hartuko nuke eta lehenengo ikasturteko ibilbide osoa ere lagunduko nuke:

- Proiektua diseinatzen eta adosten: Euskara Elkartarekin bilerak, dinamizatzailearekin koordinazioa, ikastetxeei proiektua aurkezteko gidoia eta euskarriak prestatzea...
- Ikasleei deialdia egiteko egingo diren saioak prestatzen.
- Batzordean parte hartzeko izena ematen duten ikasleekin lehenengo formazio saioa dinamizatzen.
- Dinamizatzaileari eta batzordekideei ideiak garatzen eta zehazten laguntzen.